



AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Ezaugarri orokorrak:

- Idatzizko proba honek 4 ariketa izango ditu.
- 1. galdera Derrigorrezkoa da, eta ez du hautatzeko aukerarik emango.
- 2., 3. eta 4. galderak: Bi aukeren artean bakarra aukeratu behar duzu (adibidez: 2.1, 3.2, 4.1).

Beste ohar batzuk:

- 2. eta 3. galderak: Enuntziatu zehatzera mugatu behar zara, eta gehienez 150 hitzetan erantzun galdera bakoitzari.
- 4. galdera: Proposatutako testu bietako bat aukeratu eta iruzkindu beharko duzu.

Zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpide espezifikoak:

1. galdera (2 p.):

- a) Testuan sartutako akatsen identifikazioa: 1 p.
- b) Akatsen zuzenketa (zuzen idaztea): 1 p.

2. eta 3. galderak (2 p. galdera bakoitza):

- a) Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 0,75 p.
- b) Kontzeptuen erabilera egokia eta berariazko hiztegia: 1 p.
- c) Gaiaren testuingurua: 0,25 p.

4. galdera – Testu-iruzkina (4 p.):

- a) Testuaren kokapena (testu mota, egilea, jasotzaileak, garaia): 0,5 p.
- b) Testuaren analisisa: testuaren oinarritzko ideiak nabarmentzea: 1 p.
- c) Testuinguruan jartzea: testua bere prozesu historikoan ezartzea: 2 p.
- d) Testuaren garrantzia: kokatzen den aldi historikoa ulertzeko testu horrek duen garrantzia adieraztea: 0,5 p.

Zuzentasun ortografikoa:

Beharrezkoa da idatzizko ekoizpenen zuzentasun ortografikoari arreta jartzea. Akats ortografiko bakoitza 0,1 punturekin zigortuko da, gehienez puntu bateraino.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

ESPAINIAKO HISTORIA

HISTORIA DE ESPAÑA

1. GALDERA (2 puntu): Iturriei buruzko hausnarketa kritikoa.

Zure institutuko aldizkarian sartu berri zara dibulgazio historikoaren ataleko arduradun gisa. Ikaskideek esan dizute ChatGPT bidez egindako testuren bat dutela, baina zalantzan jartzen dutela testuaren zehaztasuna. Beraz, honako testu hau berrikusteko eskatu dizute, balizko akatsak antzeman eta zuzentzeko. **Bost dira aurkitu beharreko akatsak.**

“Euskal probintzietan ekonomia arloan indarrean dagoen sistema itunduak pribilegio nabarmena du erregimen arruntari lotutako gainerako lurralde nazionalarekiko, ez probintzia horietako aldundiek arlo horretan duten autonomia zabalagatik bakarrik, baizik eta probintzia horietako zergapekoak karga publikoak altxatzeko egiten duten ahalegin handiagoagatik (...).

Kontzertua mesedegarri izan zuten askok botere publikoaren eskuzabaltasuna ahazturik, Gipuzkoan eta Araban, armak hartu zituzten maiatzaren 17an abiarazitako Mugimendu Nazionalaren aurka, eta traizioz erantzun zioten salbuesenezko eskuzabaltasun hari (...).

Zerga eta administrazio erregimenaren berezitasunak bere sentimendu nazionala eta Aberriaren patu komunarekiko atxikipenaren suhertasuna gero eta gehiago goraipatzeko balio izan du probintzia batzuetan, hala nola Nafarroa txit leialean. Beste batzuetan, aldiz, Espainiaren aurkako politika guztiz baldarra egiteko balio izan du; horiek horrela (...), amaiera eman behar zaio kalte larriak eragiteko tresna gisa erabili zuten sistema horri.

Gogoeta beren arabera, Bizkaiko probintzian gaur egun indarrean dagoen sistemak jarraitu egin behar du (...).

Horren kariaz, honako hau xedatzen dut:

Lehen artikulua. Datorren uztailaren batetik aurrera, Estatuko kontribuzio, errenta eta zerga arrunt eta berezi guztien kudeaketa eta bilketa indarrean dagoen erregimen komunaren arabera egingo da Gipuzkoa eta Bizkaia probintzietan (...).

Beraz, indargabetuta geratuko da, lehen adierazitako datatik aurrera, haien aldundiekin itundutako eta gaur egun indarrean zegoen ekonomia arloko erregimena.

Burgosen, 1937ko ekainaren 23an.

Francisco Azaña.

Boletín Oficial del Estado, 1937ko ekainaren 24koa.

16. TESTUA. KONTZERTU EKONOMIKOAK EZEZTATZEKO LEGE-DEKRETUA (1937-06-23)



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

ESPAINIAKO HISTORIA

HISTORIA DE ESPAÑA

Erantzun bi atal hauei:

1.1.- Identifika itzazu informazio-okerrak. (1 puntu)

1.2.- Zuzen idatz itzazu antzemandako akatsak. (1 puntu)

2. GALDERA (2 puntu): Proposatzen zaizkizun gertaera historikoetatik BAT aukeratu, eta identifikatu eta azaldu hori ERAGIN DUTEN KAUSA NAGUSIAK (gehienez 150 hitzetan):

2.1. Autarkia ekonomikoa (9. GAIA. Estatu frankistaren sorrera. 1939-1959)

2.2. Frankismo berantiarren krisia (10. GAIA. Diktadura frankistaren finkapena eta krisialdia. 1959-1975)

3. GALDERA (2 puntu): Proposatzen zaizkizun gertaera historikoetatik BAT aukeratu, eta identifikatu eta azaldu horren ONDORIO NAGUSIAK (gehienez 150 hitzetan):

3.1. Azken Karlistaldia eta foru-indargabetzea (3. GAIA. Foruak eta liberalismoa: Karlistadak eta foruak indargabetzeko prozesua. 1833-1876)

3.2. Fronte Popularraren garaia (7. GAIA. Bigarren Errepublika: 1931ko Konstituzioa eta erreformak. 1931-1936)

4. GALDERA (4 puntu): Testu-iruzkina.

Bi testu hauetako BAT aukeratu, eta egin azterketa kritikoa.

4.1. 10. TESTUA: VICENTE BLASCO IBÁÑEZEN *EL INTRUSO* ELEBERRIKO PASARTEA (1904)

“Peoien etxea” zen, meatze-mendietako aterpetxe ziztrina, eta jornalariak han bizi ziren, pilatuta. (...)

Arestik zulo hartan igarotako gauetan pentsatu zuen, tristuraz beteta. Peoiak abailduta iristen ziren, egun osoa ematen baitzuten barrenatzeko makinek ateratako blokeak apurtzen, bagonetak harritzarrez betetzen, mea-biltegira eramaten eta mea-biltegitik ekartzen. Babarrunak eta patatak bakailao edo urdail pixka batekin eskas afalduta, gelaxka hartan egiten zuten lo, izerdiz edo euriz bustitako jantziak soinean zituztela; botak bakarrik eranzten zituzten; jaka ere bai, batzuetan. Eskuez uki zitekeen sabai haren azpian, airea ez zen mugitzen, eta ordu gutxi batzuk igaro ostean, ezin arnastuzkoa bilakatzen zen, hainbeste gorputzen lurrunak loditua eta zikinkeria-usainez josia. Kamainen tolesetan, egurrezko junturetan nahiz sabaiko zuloetan bizi ziren parasitoak ehizara ateratzen ziren, beroak suspertuta, eta nekeak eraginda lozorroan zeuden gorputz bizigabeekin anker jokatzen zuten, iluntasunaren babesean. Gau



ESPAINIAKO HISTORIA

HISTORIA DE ESPAÑA

ekaiztsuetan, zirrikitu eta arrailetatik sartu eta batetik bestera ibiltzen zen haizea, etxetzakoa behera botatzeko zorian. Halakoetan, gorputz jantzi eta kirasdunak elkarren bila aritzen ziren, beroa lortu nahian. Izerdiak elkartu egiten ziren, eta arnasak nahasi; zikinkeria anaiartekoa zen. (...)

Harrobia zen langile errebeldeen etsairik gogorrena. Lurpeko meazuloetako arriskuei aurre egiteko, beharrezkoa zen nolabaiteko trebezia; beraz, ez zen erraza hango langileen ordezkioak bilatzea, irakatsi egin behar baitzitzairen ofizioa. Baina Enkarterri emankorretan, burdinak mendiak osatzen ditu: ustiaketa kanpoaldean egiten da; harria atera, jaso eta eramanez, ez da besterik egin behar; zulatu eta apurtu, ereiteko lurretan bezalaxe. Goseak bultzatuta, etengabe iristen ziren peoiak, multzo handitan, eta gehiegikerien aurka protestak lanpostua utzi zutenak erraz ordezkatzeko zituzten, ahaleginik egin gabe. Gizonen etorrera etengabe hura eteten ez bazen, Enkarterrietako langileak behin eta berriz ordezkatzeko bazituzten, zaila zen lan hark bere eskubideak eskuratzea.

Vicente Blasco Ibáñez, *El intruso*, Valentzia, 1904.

4.2. 17. TESTUA: ERANTZUKIZUN POLITIKOEN LEGEA (1939-02-09)

(...) Gobernuak (...) uste du unea iritsi dela Erantzukizun Politikoen Lege bat emateko, balioko duena beren egite edo ez-egite larriekin matxinada gorria gorpuzten lagundu zutenek alde horretatik dituzten erruak garbitzeko (...).

Zigorak ezartzeaz arduratuko diren auzitegiaren kideak Armadaren, Magistraturaren eta Falange Española Tradicionalista y de las JONSen ordezkariak izango dira (...).

1 art. Erantzule politiko deklaratuak dira 1934ko urriaren 1etik 1936ko uztailaren 18ra bitarte Espainiari jasanarazi zitzaion era guztietako subertsioa eragiten edo areagotzen lagundu zuten pertsona fisikoak nahiz pertsona juridikoak, eta orobat bigarren data horretatik aurrera, beren egintza batzuekin edo gelditasun larriarekin, Mugimendu Nazionalaren kontra aritu direnak edo daudenak.

2. art. Aurreko deklarazioaren ondorioz, (...) legez kanpo gelditzen dira 1936ko otsailaren 16an egindako hauteskundearen deialdia egin zenez geroztik Fronte Popularra osatu duten alderdi edo talde politiko eta sozial guztiak, eta orobat harekin bat egin duten edo hari atxiki zaizkion alderdi eta taldeak hori egin izan hutsagatik, bai eta erakunde separatistak ere, eta Mugimendu Nazionalaren Garaipenari kontra egin dioten guztiak.

3. art. Legez kanpo deklaratuak alderdi, talde eta erakundeek osotara galduko dituzte era guztietako eskubideak eta ondasun guztiak.

Boletín Oficial del Estado, 1939ko otsailaren 13a.